

ERRUKIAREN IRAULTZA

Doinua: "Iparragirre abila dela"

1

Anai-arrebok, eragin deusku
aurten Jubileu Santuak,
Berarengana erakarriz
Jaungoiko errukitsuak.
Jesusen parabola
benetako eskola,
aitaren seme galduak.
A zer aukera garbituteko
egindako pekatuak.

2

Egun batean seme gazteak
zelango atrebentzia:
"Ni gaur banoa ta emoidazu
tokatzen dan herentzia".
Zentzun ta bihotza huts,
buruan haizeak putz
eta nun kontzientzia?
Malkotan aitak: "Etorriko da"
errukiz pazientzia.

3

Pobreak ez dau seniderik ta
aberatsak hamar mila,
uste baino lehen batu jakozan
bere antzekoak pila.
Ibili nahi bestean,
laster zara eskean...
larritzen doa mutila;
on bila ta on bila ibili,
azkenerako bonbila.

4

Galgak zeharo erre ondoren
laster joten da baztarra,
esperientzi latza bete da:
"beharrak dakar beharra".
Joan da lehengo sasoia,
orain dator jipoia,
eskean joan beharra:
txarrizain morroi jarrita horra
bakardadean negarra.

5

Sabela hotzik, sakela hutsik
bihotz beteko tristura,
beste inora urten ezinik,
sartu zan bere barrura:
"Gurean morroiak plen,
semea gosez hemen,
hau da nire abentura...
Aitari beste inori ez deutso
gixajo honen ardura".

6

"Aitarengana bihurtuko naz
ta pekatua autortu,
etxean morroi hartu nagian
ea ahal badot hau lortu".
Aita beti begira
semeaz erruki da,
ezin da barruz bizkortu;
bihotz beteko erruki haundiz
ahal izango dau birsortu.



7

Ez jantzirik ta ez itxurarik
ijito baten pareko,
aitak ikusten dau urrunean,
ez da geldi egoteko.
"Ene aitatxo, parka",
aitak malkoz besarka,
ez da berbaz esateko...
-"Eginak egin, seme galdua
beti izan dot etxeko".

8

"Kendu zarpilak, garbi ugerrak,
ekarri jantzi apainak;
zekor gizen bat hil ta erosi
jan ta edari bikainak.
Semea neukan hilik,
hemen dago bizirik,
jo kanpai ta txilinak"...
Zelan baretu aita onaren
errukizko irakinak!?

9

Solo-lanetan zan seme zaharrak
zergaitik zan jai jakin ez,
ez eban gura barrura sartu,
goraka erresuminez.
Aitaren erreguak
danak alperrikuak,
semea poztu ezinez.
Gaiztoarekin ahal izan eban,
on ustekoarekin ez.

10

Aita onaren errukia da
guretzat harrigarria,
zeruko Aita zelangoa dan
Jaunak apropos jarria.
Jainko Aita-Ama
erruki hutsa dana
Jesusek iragarria;
gu pekatari garanontzat da
ERRUKIZKO BARRI ONA.

A. Martzel

